

# Karkara

*karkara.eus*

 Orioko eta Aiako aldizkaria • 2019ko urriaren 25a • 410. zenbakia

## Emakume baserritarrak argitara

A woman with short blonde hair, wearing a bright pink zip-up jacket and light blue jeans, is standing next to a green tractor. She is leaning against the tractor's frame with her right hand. The tractor has '4X75' and 'ER' visible on its side. The background shows a wooden building and some trees.

Urriaren 15a, landa eremuko emakumeen nazioarteko eguna izan zen, eta KARKARAK Aiako hainbat baserri bisitatu ditu, bertako emakumeen bizipenak jasotzeko.



**Sinergia** | fisioterapia & ikerkuntza

943 13 05 77  
685 71 85 95

· Lesioak: bihurturak, tendinitisak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta heduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.

· Tratamenduak: terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterpaia, kinesotaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresioba (GAH), REDCORD.



Ibai Ondo 1, Bajo - Orrio  
sinergiafisioterapia.com



**Garraio frigorifikoa**  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4

Tel. 943 894 024

Fax. 943 130 144

20809 AIA - ORIO



Hemengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txekorra, txorizo, kroketak...

**HARTEGIA PATXI OLIDEN URDAITEGIA**

Eusko Gudari, 25 · 943-83 00 10

**ROSANA**  
-ARGAZKI ESTUDIOA-  
fotorosanaarruti@gmail.com  
tel: 943 85 58 45

**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

**ZINKU ERAIKUNTZAK**

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe*

Ander Zinkunegi  
**667 740 279**

**IZARRA ELEKTROGAILUAK**

ZATOZ ZURE HERRIKO ESKAINTZAK EZAGUTZERA

20 HILABETE INTERESIK GABE

**OSTIAL BELTZA BAITA ORION ERE**

Eusko Gudari, 44 · 943-83 38 81 · 20810 Orrio (Gipuzkoa)  
izarraelectrodomesticos@gmail.com

**Sagasti LEIHOAK**

Tel. 943 13 00 77 - Fax 943 53 71 50  
sagasti@sagastileihoak.com  
Eusko Gudari, 7  
20810 Orrio

Kalitatezko materialak  
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa  
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihoak.com

**Joseba AROZTEGIA • CARPINTERIA**

ATEAK  
ZOKALOAK  
ARMAIRUAK NEURRIRA  
LEIHOAK  
ESKAILERAK  
ARROZTEGIA OROKORREAN

687 683 427  
josebaarotza@gmail.com

410

# Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
20810 Orio  
943 83 15 27

karkara@karkara.com  
www.karkara.com

## Editorea

Urolako Komunikazio  
Taldea Koop. Elk. Soreaus  
z/G

20730 Azpeitia  
**Erredaktore burua**  
Aiora Larrañaga

## Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran  
Dorleta Agiriano  
Iñigo Exposito  
Iñigo Gaiton  
Miriam Garcia  
Jon Garate  
Aiora Larrañaga  
Onintza Lete  
Elizabete Manterola  
Intza Unanue  
Rikardo Uzkudun

## Ale honetako kolaboratzaileak

Gorka Etxeberria  
Xabier Etxeberria  
Iñaki Iturain  
Eneritz Odriozola  
Ana Iturain  
Aitor Arregi  
Rikardo Uzkudun

## Diseinua

Saioa Perona

## Banatzaileak

Endika Ruiz (Orió)  
Manex Dorronsoro (Orió)  
Eli Irueta (Aia)

## Inprimategia

Antza S.L. (Lasarte-Oria)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. Karkaran argitaratutakoak bereman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria alpatzen bada

**TOKIKOM**



## LAGUNTZAILEAK:



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

*Hasi bertsotan* atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Gorka Etxeberriari jarri dio puntua Ibon Arruti 'Aldape'-k: *Igeldoko harria horren baldarra al da?* Hurrengoari ere jarri dio puntua.

## PUNTUA JARRITA

**GORKA ETXEBERRIA** (DOINUA: LIZARGATE)

**1**

### Igeldoko harria horren baldarra al da?

nere kontran ematen diot besarkada, bestela goitik behera doa txirristada, latz urratu zizkidan besok ta sorbaldá.

**2**

Hona bideratzen det urteko jarduna, hirugarren nintzen ta Jokin txapelduna, harri munduko *Kontxa* oso det kuttuna, txaloz jendeak gehien eskertu ohi duna.

**3**

Ostolazakin badet laguntza prestatzen, urtez urte ari naiz nere markak ontzen, ea noizbait Aldape didazun laguntzen, udaletxeko balkoin txapela astintzen.



Gorka Etxeberria eta lagunak. GETXEBERRIA

### Hurrengo bertsolaria:

Ainara Manterola

### Puntua:

Orioko jendea sasoian al dago?

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



## Nahikoa da

Lerro hauen bidez bakarmena eskatu nahi diot herriko gazte bati, irailaren 22an izandako gertakizun baten inguruan, berak ez baitzeukan erlaziorik ekintzarekin.

Hala ere azaldu nahi dut azken urteetan pairatzen ari naizen egoera jasan ezina.

Etxean eroso egotea denok dugu gustuko, nik ordea ezin dut. Duela 2 urtetik herriko ume edo ez hain umeek gustuko hartu dute nire etxeko txirrina jotzea, arratsaldea edo gaua izan. Egun batzuetan batz bestea 10 aldiz. Deia hartu eta nor den galdetzen dudanean hitz itsusiak esaten dizkirate, plastilina itsatsita ere jarri izan didate.

Beraien joko horretan ez sartzea ere erabaki izan dut baina ez badut erantzuten hurrengo txirrina oraindik eta luzeagoa izaten da.

Benetan egoera hau egunetik egunera okerrera doala. Espero dut idatzi honek balioko duela beraien kontzientziarako. Nahikoa da.

• **Herritar bat.**

## Heriotza haur eta gazteengan

Heriotzaren gaia beti sentitzen dugu triste eta hotz, bereziki gazteen artean atea jotzen duenean. Ez da inolaz ere gai samurra, ez. Baina beharrezkoa da horren inguruan hitz egin eta sentsazioak eta kezak elkarbanatzea.

Askotan entzun izan dut irakasle, guraso eta terapeuten ahotik baliabide gutxi daudela gai hauek jorratzeko. Eta horri erantzuna emateko, gonbidatu dugu Mar Cortina aditua Gipuzkoara.

Gaur, urriaren 25ean, hitzaldi bat emango du 19:00etan Donostiako Koldo Mitxelenan eta bihar, hilaren 26an, Orion izango dugu tailer bat eskaintzen (benetan aukera paregabea Mar Euskadin izatea)

Informazio zabalagoa duzue

## Gutunerako oharak

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com) edo erredakziora eskura ekarri - Orioko edo Aiako Kultur Etxean - edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

eskuragai gure web orrian: [www.mandalarataldea.com](http://www.mandalarataldea.com)

Heriotzari argia eman ez jarrai dezagun, denen osasunerako.

• **Amaia Gozategi Urbietak.** Mandalara taldeko idazkaria eta koordinatzailea.

## Eskura herrian bertan

Iraileko KARKARAn irakurri nuen konpresa berrerabilgarrien gaineko informazioa interesgarria iruditu zitzaidan. Non erosi daitezkeen jakitera ematea gustatuko litzaidake, ordea.

Jakin nahiak bultzatuta, bilatzen hasi eta aurkitu nuen erosteko bidea. Eta informazio hori besteekin konpartitu nahi dut hemen.

Sarak eta Janirek web orri bat dute, [www.ilen.es](http://www.ilen.es), eta bertan atal bat dago konpresak salgai dituzten inguruko denden izen eta helbideekin. Orion bertan badugu bat, Eki-Lore belar-denda.

Ea ba jende gehiago animatzen den web orria bisitatzea eta halako produktuak probatzera. Beste

aurrerapauso bat litzateke gure hilekoaren kulturaren.

• **Pat Cowie.**

## Orio denon etxea da, zaindu dezagun

Goiko Kaleko bizilagun bat naiz, eta oso haserre nago eguna joan eguna etorri gure auzoan ikusten dudana panoramarekin. Denbora da edukiontzien inguruan zabor poltsak agertzen direla; ez da bat izaten, asko izaten dira, eta horrek zaborra biltzeko sistemarekin arazoa dugula esan nahi du.

Argazkian, txartelarekin irekitzen den errefuxa edukiontzia ikus daiteke, zabor poltsa mordoa inguruan dituela. Nor da horren arduraduna? Nik ardura herritarrena eta erakundeena dela esango nuke.

Alde batetik, herritarrena da, gure ardura delako zaborra txukun biltzea eta dagokion edukiontzira botatzea. Inolaz ere ez da onargarria zabor poltsak kalean botata uztea, eta hori egiten duenari kargu hartu beharko lioke udaltzainak. Zertarako daude udaltzainak gure herrian. Gaizki aparkatzeagatik isunak jartzeko bakarrik? Zabor poltsak izan beharrean, edukiontzia ondoan dagoena kotxe bat izango balitz, azkar jasoko luke isuna kotxearen jabeak.





Bestetik, edukiontziak irekitzeko txartelaren sistema ez da batere egokia. Familia bakoitzak txartel bat du, baina normalean familia hiru-lau edo bost kidek osatzen dute. Txartela familiako kideren batek eraman dezake nahi gabe, eta galdu ere egiten dira, ondorioz, zaborra botatzera joaten denak edukiontziaren ondoan uztea besterik ez du. Edukiontzi horiek

gainontzekoak bezala ireki beharko liriateke, herritarrok behar dugunean zaborra bota ahal izateko.

Horrez gain, katuen arazoa ere badugu auzoan. Edukiontzien kanpoko aldean zabor poltsak uzten badira, gauean katuak horietara joaten dira jan bila, eta zaborra zabaltzen dute inguruan. Ez dugu ahaztu behar, musika eskolaren inguruan gertatzen dela hori, eta

infekzio iturri izan daitekeela.

Arazoa ez da berria. Askotan joan izan naiz udaletxera kexatzera, eta baita Urola Kostako Udal Elkartera gertatzen denaren berri ematera. Dena dela, Goiko Kaleko auzotarrei zaborra txukun jasotzeko deia egin nahi diet, Orio denon etxea delako eta denon artean zaindu behar dugulako

• **Goiko Kalean bizi den herritar bat.**

## ■ JAIOTAKOAK

- Aboubakar Doumbia Camara, Orion, irailaren 20an.
- Axel Oliden Oteiza, Orion, urriaren 2an.

## ■ HILDAKOAK

- Magdalena Perez Jimenez, Orion, irailaren 26an. 92 urte.
- Patxi Osa Larrañaga, Orion, urriaren 19an. 89 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27** edo idatzi mezu bat e-posta honetara: [karkara@karkara.eus](mailto:karkara@karkara.eus)



Aurrera doaz Herriko Plazako berritze lanak. KARKARA



Kofradia Zaharra botata, partzela garbitzen ari dira lanean. KARKARA



Urriaren 20an eman zioten hasiera erromeria denboraldiari. KARKARA

# Pandero hotsak urrian

“Egunero oilarraren kukurrukuak esnatzen ditu baserritarrak. Eta orain, makinaren dardarak herritarrak.”

**P**andero hots ezberdinekin agurtu dugu udako eguralditik udazkenekora garamatzen hilabetea. Herri osoa katarroz bete duen hilabetea. Egun batean kamiseta beso motza, eta hurrengoan txamarra beroa jantzi behar izaten den hilabetea.

Badirudi tenperatura hotza Kofradia Zaharraren agurrarekin batera etorri dela. Eta hilabete luzez geratzeko, gainera. 1926. urtean eraiki zuten gure Kofradia Zaharra, 93 urte herriaren bihotza izaten, itsas bizimodua eta izaera. Eta hiru egun hori guztia goitik behera botatzeko. Orduantxe entzun genituen lehenengo pandero hotsak.

Bigarren pandero hotsak herri erdiko lanekin batera etorri ziren. Egunero oilarraren kukurrukuak esnatzen ditu baserritarrak. Eta orain, makinaren dardarak herritarrak. Errusta tabernatik hasi eta plazaraino geratu gara ia lurzorurik gabe. San Nikolas jaiak ere lekuz aldatu behar izan dituzte. Aurten, Ikastola pareko plaza hartuko dute festetako pandero hotsek.

Eta nola ez, Aiako Andatza auzoko pandero soinuek agurtu dute urria. Hilaren 20an eman baitzioten hasiera aurtengo denboraldiari. 18:30ean hasi, eta jo ta su jarduten dute trikitalariek hiru orduz. Haur gazte zein helduek badute hemendik aurrera igandero gorputza mugitzeko aukera, trikiti eta pandero hotsekin batera.



# Zer iruditzen zaizu San Nikolas jaietan tiobiborik ez egotea?



“Tiobiboak jartzeko tokiren bat izango da”

**H**elduoi ez zaigu axola San Nikolas jaietan tiobiborik ez egotea, baina bilobek pena ematen didate. Nire bilobek 11, 7 eta 5 urte dituzte, eta haientzat festetan garrantzitsuena tiobiboetan ibiltzea izaten da.

Urte guztian festak iritsi zain egoten dira, tiobibo eta atrakzioetan ibili ahal izateko.

Badakit plaza itxita, festa gunea beste nonbaitera pasa behar dela, baina uste dut tiobiboak jartzeko tokiren bat zango dela Orion, ibai ondoko pasealekuan, esaterako.

**Teresa Uranga**

“Alternatibaren bat eskaini beharko da”

**N**ik dantza emanaldiak antolatzen ditut, eta beti galdetu izan diot neure buruari ea zergatik festa gunea ez zen Ikastola aurreko plazan jartzeko, Herriko Plaza txiki samarra geratzen baita. Hala ere, ama naiz eta haurrentzat tiobiborik ez egoteak pena ematen dit. Hurrek jolastu eta ondo pasa nahi dute, eta horretarako beste alternatibaren bat eskaini beharko du festa batzordeak. Adibidez, ondo legoke puzgarriak egun batean baino gehiagotan jartzea.

**Ouarda Mallal**

“Nerabeentzat sozializatzeko gunea bat izaten da”

**N**iri pena ematen dit, tiobiboak haurrentzat festetako pizgarri bat direlako, gu ere txikitik atrakzioak etorri zain egoten ginen. Helduek esaterako, ez genuke irudikatuko tabernarik gabeko festa bat, eta gauza bera gertatzen zaie hurrei eta nerabeei tiobiboekin. Izan ere, kontsumo ohituretatik harago, nerabeentzat sozializatzeko gunea bat izaten da tiobiboen gunea, hori gabe zer egingo dute adin tarte horretako gaztetxoek. Ea Udalak festa ereduarekin asmatzen duen.

**Iker Gurrutxaga**

# Pentsamendua



Xabier Etxeberria

**Kofradia zaharreko paretak bezain erraz botatzen ditu denborak betirako direla uste ditugun gure errutina txiki guztiak.**

spalditxo egin beharra neukan baina, gauza bat dela eta bestea dela, atzeratzen joan zait eta gaur hasi naiz (azkenean / bahuen garaia / que te bejondan) balkoiko loreak aldatzen.

Loreontzietara hurbildu hutsarekin aitortu behar izan dut: lehenago egin behar nuen. Honezkero pena ematen dute, izan ere, han eta hemen zintzilikatuak ditugun loreek: alegriak triste daude zeharo, zimelduta, eta oraindik benetako hotzik egiten ez duen arren, udako epeletik urrun betetasuna galduta daude surfiniak ere.

Landare hauek atera eta haien orde z zer jarri erabaki ezinik, begirada altxatu dut. Zeruan, izena jartzera asmatzen ez dudana hegazti talde bat (kurrilloak ote dira, edo antzar basatiak?) hodeien gainean letra bakarreko txioa idazten: V.

Ume koskorra nintzenean Espainiako telebistan botatzen zuten serie harekin gogoratu naiz ezinbestean; halaxe izena zuen baita ere: *V, los visitantes*. Burua hazkatu dut. Bada marka. Orduan kapitulu bat bera ere galdu gabe ikusten nuen baina, orain, lepagaineko melokotoia estututa ere, ez dut ezer askorik gogoratzen: extralurtar gaiztoen nagusiak Dayana izena zuela

besterik ez eta, gure osaba zenak esparragoak bezalaxe, arratoiak oso-osorik eztaurretik behera irensten zituela. Gure osaba, akordatu naiz bat-batean, zenbat urte honezkero hura ere hil zela.

Ustekabeko tristura atzean laga nahian, etxetik atera eta loredendara abiatu naiz, erosketa umeak ikastolatik atera aurretik egiteko asmotan. Nahiz eta alabak jada ez diren hain ume eta, egia esan, ikastolatik etxera etortzeko aitaren beharrik ez izan. Kofradia zaharreko paretak bezain erraz botatzen ditu denborak betirako direla uste ditugun gure errutina txiki guztiak, egin dut nire artean eta, irribarre zimur batez, zer lore erosi erabaki dut kolpera.

Alaba txikiena izan da lehena irteten, eta ikastolara plastikozko poltsa pare batez zamatua iristen ikusi nau. Harrituta geratu da poltsen barruan landare-potoak zeudela topatzean.

- Zer lore dira, aita?

- Pentsamenduak, maitea. Lore zaharrak kendu eta berriak jarriko ditut, bizitzak aurrera jarraitzen du. Orain hau tokatzen da: pentsamendua udazkeneko lorea da.





Iruntxiberriko aita, ama eta 12 seme-alaba; gazteena artean jaio gabe.

## Oroimenaren kutxa

# Iruntxiberriko senideen Santu Guztien festa

Azaroaren lehen Aia eta Orioko familia askotan gogora ekarriko dituzte beren hildakoak, etxeakoak. Horixe egingo du Andatza auzoko Aristerrazu baserrian bizi den Felisa Albeniz Maizek bere anai-ahizpekin. Iruntxiberri baserrian jaiota, bizirik diren 10 senideek joandakoak oroitu dituzte, urtero bezala denak elkartuta.

Andatzako San Pedro ermita ondoko Aristerrazu baserri-jatetxeko etxean bizi da Felisa, 93 urteko amona, hango sukaldean lan egiten du. Santu Guztien egunean hara bilduko dira hamarrak bazkaltzera, aspaldiko urteetan bezalaxe. Aurretik, meza nagusia entzungo dute Aiako elizan eta, ondoren, hilerrira joango dira, hango hilobian lurperatutako senideei bisita egitera. Horixe dute errituala.

Belaunaldi gutxitan asko aldatu dira ohiturak, heriotzaren aurreko gure jarrera eta jokaera. Kultura oso bat sortu da heriotzaren inguruan: dolua, lutoa, kolore beltza, erritualak, fedea, sineskerak, erlijioak, azken igurtzia, zerua eta infernua, beldurra, lurperatzea, hilobiratzea, erraustea, loreak, hil-kanpaiak, hileta, agurra, eskela, egun handira arte... 'Goian bego'tik 'Gugan bego'ra pasatu gara, lurperatetik erraustera. Ohituretan bezala izan dira aldaketak, baita ere, seme-alaben kopuruan, haien izenetan, bizimoduan, ofizioetan... Hori garbi ikusten da Iruntxiberrikoei erreparatuta.

Iruntxiberri baserria Aiako Andatza auzoan dago, handik Aiara doan errepidearen ondoan, eskuinaldean. Baserria hutsik dago, 1950etik ez da inor bizi. Zutik pareta batzuk geratzen dira. Baina han 13 senide jaio ziren 1920 ingurutik 1943 bitartean: zazpi mutil eta sei neska. Haietako hamar bizi dira: Felisa (93 urte), Pedro (91), Ramon (89), Antonio (87), Maria (85), Benigno (84), Leon (82), Pili (80), Manuel (78) eta Rosi (76 urte). Santu

guztien egunean gogora ekarriko dituzte hildako hiru anai-arrebak, etxeako hiru zaharrenak: Juanita, Manuela eta Jose; eta nola ez, gurasoak ere bai: Jose Mari Albeniz eta Antxon Maiz.

Horretarako, bakoitza bizi den tokitik etorriko da Aristerrazura, bat urrutitik: Palmatik; gainerakoak, Hernani, Eibar, Donostia edo Andoaindik. Hiru bizi dira Aian: Felisa, Aristerrazun; Ramon, Azkorten; eta Antonio, Aialdeburun. Juanita zena Untzantzoro baserrian bizi izan zen. Azaroaren lehenean bakarrik elkartzen dira; horregatik da haientzat horren inportantea egun hori. Bazkaria ere ez dute nolana hikoia izango: frijituak, arrain zopa, entsalada, arkumea, legatza eta txuleta izango dituzte aukeran.

Euskal Herriko nekazari-tradizioei lotutako lanbideetan ibili dira gehienak: baserriko lanak, etxeokandrea. Benigno etxe-erakuntzan aritu da ofizioz, uztargile afizioz. Ibon Gaztañazpik ETB1eko *Herri People* saiorko elkarrizketatu zuen. Leonek lanbide asko izan ditu bere denboran: konstruktzioan ibili zen, ile-apaintzaile, okina izan zen, zurgina, tabernaria eta liburu- banatzailea, baina batez ere herri kiroletan nabarmendu da, ospetsua izan da Euskal Herri osoan. Jose Migel Maiz korrikalari izandakoa ere lehengusua dute, amaren aldetik. Maizek Lasarteko krosa irabazi zuen 1968an; bera da oraindik ere maila nagusian irabazi duen euskaldun bakarra.

Kasta gogorreko jendea dira Iruntxiberriko denak ere. Benignoren alaba Olatzek gogoan du nola joaten zen Hernanin bizi zen Manuela, 90 urte zituela, hango atletismo-pistara, kale jantzian, korrika pixka bat egitera.

Urte askoan ospa dezazuela elkarrekin Santu guztien eguna!

# URANGA

**burdindegia**  
**Opari, menaje eta erremintak**  
 fer.uranga@euskalnet.net  
 Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

BODEGAS  
*Gailur*  
 01307 BAYOS de EBRO  
 Tel./Fax 995 60 91 58  
 www.bodegasgailur.com  
 Arabar Errioxa

**ZUDUGARAI**  
  
*Getariako Txakolina*  
 Tel. 943 83 03 86  
 Fax 943 83 59 52  
 bakolizudugarai@euskalnet.net  
 www.bakolizudugarai.com

**Imanol Illarramendi**  
 Aia (Gipuzkoa)



**KORTABERRI**  
**arotz lanak**

kortaberri.arotza@hotmail.com      ☎ 665 70 33 47

**TAILER MEKANIKOA      AUTO LAN**



Pelotari 5, Orio  
 943 83 00 34

Zure Konfidantzazko  
**Gertuko Tailerra**

**MENDIZABAL**  
**ARROZTEGIA**  
*Neurriko armairuak eta egurlanak*

943 831 175      Altxerri bidea  
 645 708 491      Beti-Alai etxea  
 mendi@arotzgi.net      20810 Aia-Orio



Tel. 943 83 31 03

**ITZIAR KIROLAK**

Reebok    ALTUJ    trang world  
 adidas    newbalance    crocs    CMP    STORE

**PERTSIANAK**  
 A K O      M A Z



Aluminio, PVC  
 Venezianak  
 Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

**Desatascos**  
  
**LASTER**

Hodi-libraketa  
 Garbiketak presio handiko urarekin  
 Saneamendu-sareen mantenu prebentiboa  
 Hodien, isurbideen eta estolderiaren ikuskatzea, kamerarekin  
 Uholde urak ateratzea  
 Ezkutuko kutxatilen detekzioa


24 ORDU

688 886 536  
 desatascos@desatascoslaster.com  
 www.desatascoslaster.com



Sagar erreka 21-A • 20590 Sorluze  
 Abaramendi bajo 3 • 20810 Orio  
 Tel.: 943 751 431

**IGLESIAS**  
**SARRILAGILEAK**



24 ORDU ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández  
**637 723 308**  
 iglesiascerrajereros@yahoo.es  
**20810 ORIO**

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALGUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

**libe**  
 dietetika  
 elikadura aholkularitza



eusko gudariak 35 :: ORIO      943 53 64 94 :: 697 23 86 56  
 [ sarrera Arrantzale kaletik ]      libegarmendia@gmail.com

Ile apaindegia  
**MARIJO**



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea  
 Tel. 943 13 47 29  
 ORIO

**KAIOA**

Arropa  
 Oinetakoak  
 Osagarriak

Arrantzale kalea, 8  
 T 943 244 685  
 ORIO (Gipuzkoa)

Zigordia kalea, 18  
 (S.Frantzisko kalearekiko izkina)  
 T 943 021 834  
 ZARAUTZ (Gipuzkoa)

Erribera kalea, 10  
 T 943 543 323  
 ZUMAILA (Gipuzkoa)

Foru ibilbidea, 2  
 T 943 252 375  
 Azpeitia (Gipuzkoa)

www.kaioa.es

**TXUKUN**  
**LORAZANTZA, S.L.**

Tel. 660 332 756 • 679 428 851

Lorezaintza  
 Mendiko lanak  
 Indusketak  
 Itxiturak



...  
 txukunlorazantza@hotmail.com



# Ikusiko garelakoan



Aitor Arregi

**Ez duzu plazara joateko beharrik ikusten, baina plazan diren horien ahotsa helmuga batera iristen denean, zure hobe beharrez ere bada.**

**G**ustura biziko nintzateke zure errutina asaldatu ezin horretan. Zure eguneroko eginkizunetatik haratago, ez baituzu kezka gehiago. Lanean bazabiltza, (zorionak) ikaslea bazara (zorte on) edo jubilatua (zortekoa zu), zu, zeure mundu txiki horretan zoriotsu zara, eta kanpoko ezerk izorratuko ez zaituen ustean bizi zara. Uste ustela.

Ikusten dituzu tarteka, herriko plazan, pankarta baten atzean, gehienetan jende bera, gehiegitan jende bera, eta galdetzen diozu zeure buruari: zer uste dute lortuko dutela?

Plazan pankartaren atzean direnek, ideia bat, erantzun bat, amets bat, haserre bat, aldarri bat aurkezten dio herriari, eta badakite adierazi nahi duten hori ez dela nahi duten bezain laster lortuko, ez dela bihar gauzatuko atzotik eskatzen hari diren hura, edo erantzuna eman behar zaion arazo horri, galderak ozenago egin behar zaizkiola.

Zure egunerokotasun horretan, arazoak mila dira, lan eskubideen urraketa, zure hizkuntzan ikasteko arazo eta trabak, zure pentsioaren duintasuna zalantzan, etab. Ez duzu plazara joateko beharrik ikusten, baina plazan diren horien ahotsa helmuga batera iristen denean, zure hobe beharrez ere bada. Imanol Epelderen *27 zapata* bideo blogetik hartu dut hurrengoa: *Kezka gehiena indiferentziak sortzen dit, pasibotasunak, benetan nago kezkatuta gure sumin guztiak, eramaten dituelako gehienez lo batek, bi txiok edo ondo eramandako crossfit saio batek*. Plazan ikusiko garelakoan, hurrenarte.



Dorleta Agiriano Lai

## Aldaketak

**E**z da garaia *sekula* hitzik esateko. Hala zioen Mikel Laboak *Dialektikaren laudorioa* kantu ezagunean.

Erloju higatuen norantzan egiten dugu aurrera, talkak talka, eta elkar jotze guztiak gure azalean biziz: uneen arteko talkak, urtaroen artekoak, mendeen artekoak. Indarren eta kontrako indarren arteko talkak, sentimenduen artekoak, borondateen artekoak. Zalantzen arteko talkak, beldurren artekoak, desiren artekoak. Eta kolpez kolpe, ekaitzaren ostean dator barea. Eszenatoki berria, parez pare. Bortitzak bezain ederrak eta beharrezkoak diren talkek, aldaketek, aurrerapausoek egin egiten gaituzte. Oinarria ez omen dago tinko, eta atzera omen goaz aurrera ez bagoaz. Ikusitako eta ikasitako guztia gure eginda, emandako pauso bakoitza oroimenean tatuatuta, aurrera egiten dugu. Eta erlojuaren kontrako norantzan dantza eginez, sarri. KARKARA ere ez dago aldaketez salbu. Hamaika buruk eta bihotzek besoz beso eta urtez urte egindako ibilbidean, pauso berri bat emango dugu aurki. Ez da garaia *sekula* hitzik esateko. Elkarrekin eta ausardiaz, bagoaz aurrera.



# Hari-mutur solteak kolore morez josiz

Martxan da emakumeentzako **Ahalduntze Eskola** Orion. Emakumeen beharrak eta nahiak identifikatzeko ikerketa egin ostean abiatu dute ahalduntzerako eta saretzerako oinarri izango den topagunea. Ostegun eta ostiraletan emango dute zerbitzua Kultur Etxean.



TESTUA: DORLETA AGIRIANO LAI

ARGAZKIAK: AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA



Aizpea Esnaola: “Emakumeok ez dugu elkar harremantzeko eta ezagutzeko espaziorik Orion.”

“Nolabaiteko tristura eta beldurra sortu dute azterketaren emaitzek.”

**E**guno mugimendu feministak islatzen dituen hausnarketa eta behar kolektiboak xehatzen hasita, hamaika bidezidor ireki daitezke zerumuga morera bidean, parez pare. Orion ere forma propioa hartu du prozesu horrek: Emakumeentzako Ahalduntze Eskola. Aurten abiatu dute proiektuaren sorkuntza prozesua Eider Goiburuk eta Aizpea Esnaolak, eta adreilu sendoak jarri dituzte dagoeneko.

Xaltzerak talde feministako kideak dira biak, eta aurreko ikasturte amaieran ekin zioten emakumeen ahalduntzerako proiektu zehatz bat irudikatzeari eta eraikitzeari. *Ez genuen nahi, proposamen konkretua guk biok soilik osatzea; prozesuak parte hartzailea izan behar zuela uste genuen, benetan jabekuntzaren helburua bete dezan. Beraz, aurreneko fase modura, Orioko emakumeen beharrak eta nahiak identifikatzeko diagnostikoa egitea erabaki genuen, emaitzen arabera proiektua diseinatu ahal izateko. Emakumeon benetako errealitatean oinarritutako proposamena sortu nahi genuen, azaldu dute.*

Bi fase barnebildu ditu diagnostikoak. Batetik, emakumeen interesak eta beharrak mahaira ateratzeko, galde-sorta bat sortu zuten Goiburuk eta Esnaolak, eta 285 emakumek erantzun dituzte bertan jasotako galdera eta auziak. Bestetik, zazpi talde eztabaida egin dituzte Orion bizi diren 42 emakumerekin. Hala, bertako emakumeen aniztasuna jaso, eta jatorri, adin eta sexu orientazio desberdineko hainbat emakume elkartu dira mahai baten bueltan, hausnartzeko nola bizi dugun emakumeok Orion bizitzea, emakume izatetik.

### Hitz egiteko beharra

*Talde modura antolatutako emakumeengana jo genuen lehenengo, baina lanak izan genituen taldeak identifikatzeko orduan, dio Esnaolak: Ez da erraza Orion emakumeak non biltzen diren edota non antolatzen diren antzematea. Hala, ikusi genuen behar hori ere badagoela. Xaltzerak talde feministako kideek, Orio Feminista taldekoek, Etxeluze gaztetxeko emakumeek, emakume nerabeek, esperientzia eskolakoek, emakume lesbianek eta emakume arabiarrek hartu dute parte eztabaidetan. Esnaolak eta Goiburuk azaldu dute, batez ere, jatorri atzeritarreko emakumeekin harremanetan jartzea izan dela zaila: Hori da prozesuari esker atera ahal izan dugun ondorio nagusietako bat: jatorri eta kultura desberdineko emakumeak bizi gara Orion, baina ez dago elkar harremantzeko eta ezagutzeko espaziorik, eta uste dugu garrantzitsua dela elkargune horiek sortzea. Dena den, azpimarratu dute emakumeen artean oso harrera ona izan duela abiatutako dinamikak.*

Hasiera batean diagnostikoa hiru hilabetean egitea



aurreikusi bazuten ere, azkenean, hilabete eta erdian amaitzea lortu zuten Goiburuk eta Esnaolak. Difusio fasean murgildu dira orain, eta emaitzak argitaratzen hasi dira pixkanaka: *Eztabaidetan parte hartu zutenei pixkanaka aurkezten ari gara diagnostikoan orain arte bildutakoa, eta guztiek dute jakinmina gainontzeko taldeetan hitz egin dena ezagutzeko*. Ahalduntze Eskolak ere eman ditu aurreneko pausoak; izan ere, martxan da dagoeneko, Orioko kultur etxeko lehen solairuko gela batean. Eskolaren sortzaileek azaldu dutenez, hiru bide jorratuko dituzte batez ere. Alde batetik, harrera zuzena jarriko dute martxan kultur etxean. Hala, ordutegi baten barruan, bertara jotzeko aukera izango dute Orioko emakumeek, *proposamenak egiteko, edota arazoren bati aurre egiteko babesa edota laguntza eskatzeko*. Hain zuzen, ostegunetan 10:00etatik 13:00etara eta ostiraletan 16:00etatik 19:00etara egongo da martxan harrera zuzenerako zerbitzua. Gainera, Gizarte Zerbitzuekin harremanetan izango dira, beharra izanez gero.

Bestetik, *liburu feministaz osatutako Apal Morea* sortuko dute Orioko udal liburutegian, abendutik aurrera. *Helburua da herri mailan kultura feminista hedatzea, Ahalduntze Eskola ezagutaraztea eta, liburu bidez, jendea proiektura hurbiltzeko baliabideak eskaintzea*, azaldu dute. Azkenik, Ahalduntze Eskolaren enbor nagusi modura, emakumeen *ahalduntzerako* ikastaroak izango dira, 2020. urtea hastean. Diagnostikoaren bidez eskuratutako emaitzetatik abiatuta, ikastaroan landuko diren edukiak prestatzen ari dira Esnaola eta Goiburu:

*Emakumeen eskakizunak baditugu esku artean; orain, guztia koordinatu eta irakasleak lortu behar ditugu, ikastaroak martxan jartzeko.*

### Emaitzak eskuan

Orioko emakumeen diagnostikoak, Goiburuk eta Esnaolak azpimarratu dutenez, argitu du zeri heldu, eta batez ere, zeren inguruan hausnartu. Kezka ere sortu du talde eztabaidetan agerian geratu den errealitateak. *Nolabaiteko beldurra edo tristura sortu dute emaitza batzuek, adineko emakumeen artean batik bat. Izan ere, eztabaidetan parte hartu duten gazteen testigantzak entzutean, pentsatu dute: gazteek ere hala bizi al dute? Askok uste zuten aldaketak izan direla herrian. Gazteen hitzak entzutean, baina, ikusi dute zenbait logikak indarrean jarraitzen dutela, eta beldurra sentitu dute, dio Esnaolak. Goiburuk azaldu duenez, gogorra da nerabeen diskurtsoa, jakitun direlako ez direla aske*

# 285

**Galde-sorta.** Orioko emakumeen beharren diagnostikoa egiteko, 285 emakumek erantzun dituzte galde-sortak. Emaitza horien arabera diseinatuko dute Ahalduntze Eskola.





bizi. Esaterako, edertasun ereduak betetzeko presio handia aipatu dute gazteek (eta ez soilik gazteek); baita heteroarauetik irteten direnek jasan behar izaten duten indarkeria edota Orioko espazioetan bizi duten askatasun eza ere. Indarkeria matxista beren azalean jasaten dute, eta askok ez dute beren etorkizuna Orion irudikatzen. Gogorra da hori adieraztea zein entzutea. Gainera, adin guztietako emakumeek adierazi dituzte intentsitate maila desberdineko indarkeria matxista egoerak. Errealitate bortitza da. .

Ikusi dugu gizon hegemonikoentzako sortutako herria dela Orio. Emakumeok ez dugu gure tokia aurkitzen askotan, baina gure artean ere badira berezitasunak; heterosexualak ez diren emakume askok herritik alde egin behar izaten dute, atzerrian jaiotako emakumeak kanporatuta eta ikusezin sentitzen dira, eta abar, azaldu du Goiburuk. Hala, Ahalduntze Eskolaren bidez, denontzako herria sortzeko alea jarri nahi dute Esnaolak eta Goiburuk; emakumeek, baita zaurgarriago direnek ere, beren lekua izan dezaten, eta Orio anitzagoa izan dadin. Bide horretan, ezinbestekoa ikusten dute ahalduntzean pausoak ematea.

Emakumeen artean saretzearen beharra ere nabarmendu du Esnaolak: Ez gara inon elkartzen eta biltzen, ez dugu topagunerik; beraz, oraindik ez dugu guztion artean indarririk sortu. Lotura hori pizteko eta sortzeko, lehenengo elkartu egin behar dugu, saretu. Modu horretan ehunduko dugu elkarren arteko babesa, eta hala izango gara indartsu, kolektiboki.

## AURRENEKO IZPIAK

**G**alde-sortetan jasotako erantzunen arabera, Orioko emakumeen artean interes gehien pizten duten gaiak dira elikaduraren bidezko autozaintza (%64,6), mindfulness (%69,8), emozioen kudeaketa (%68,8), eta autodefentsa feminista (%61,1). Bost multzotan sailkatu zituzten gai guztiak: gorputza eta osasuna, autoestimua, indarkeria matxista, sormena, eta saretzea eta parte hartzea. Bloke bakoitzean, ondorengoak izan ziren emakumeek lehenetsitako heldulekuak: elikaduraren bitarteko autozaintza, zoru pelbikoaren lanketa eta sexu osasuna lehenengoan; mindfulness eta emozioen kudeaketa bigarrenengoan; autodefentsa feminista eta indarkeria matxistaren inguruko hausnarketa hirugarrenengoan; oinarrizko brikolajea laugarrenengoan; eta aniztasun kulturala eta autoantolaketa bosgarrenengoan. Talde eztabaidetan, bost multzo horiez gain, zaintza, espazio publikoaren erabilera eta emakumeen autonomiarako baliabideak ere landu dituzte, baita bakoitza jorrazteko bide posibleak ere. Azterketa kuantitatibo eta kualitatibo horietan lortutako emaitzak abiapuntua izango dira, Ahalduntze Eskolak barnebilduko dituen ikastaroak eta edukiak erabakitze.



www.podologia-oinarri.com  
 943 575 361  
 Arrantzale 63 · 20810 · Orio

**oinarri**  
 PODOLOGIA ZENTROA



Oria Hortz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jarri du martxan.

Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre etorkizunean sor daitezkeen arazoel.

Arrantzale kalea, 63 behea  
 20810 ORIO  
 Tel.: 943 83 36 45

**Oreka**  
 fisioterapia

943 13 35 37

Eusko Gudari, 54

Ekografia muskulo-eskeletikoa  
 Eskuzko terapia · Talka-uhinak  
 Masaje terapeutikoa · Osteopatia



www.fontaneria-fontana.com

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzzea
- Zoru erradiatzailea

**fontana**  
 iturgintza

Plaza Endaia N°1, 20810 - Orio  
 fontana-ju@hotmail.es  
 943 539 888 · 661 262 828

ITURGINTZA · GASA · BERROGAILUAK

zerbitzu teknikoa  
 24 ordu

**LUXARBE**  
 igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

**ur bide**  
 iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaia Kalea, 4  
 20800 | Zarautz  
 943 890 069  
 urbideiturginak@gmail.com  
 www.urbide.es

**GARMENDIA**

Higiezin Agentzia  
 Aholkularitza  
 Aseguruak

info@egarmendia.com

Tf:943 834 466-Fax: 943 132 941  
 Ibai Ondo, 1 - 20810 Orio




**Seguros Bilbao**

Telf: 943 111 600  
 688 714 869

Santi Barranco  
 Orioko ordezkaria

Endaia Enparantza, 1  
 20810 Orio (Gipuzkoa) e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com



**ASADOR XIXARIO**

Eusko Gudarien Kalea, 2  
 Tel. 943 830 019 - ORIO

**azku**



Tf: 943 130 438

**azku**

itzilizaso@gmail.com  
 Tel:943 83 07 84



**Lizaso Dekorazioa**  
 Eusko Gudari, 48 20810 Orio

**Gabon**  
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

**azku**  
 karrozeria



Ubegun industrialdea, 7  
 20809 Aia-Orio  
 Tf/fax: 943 83 51 86  
 carroceriasazku@hotmail.com





Piraten Danborradarekin eta kaleen izen aldaketarekin eman zioten hasiera gazteek aurtengo Gazte Festei. ONINTZA LETE ARRIETA

# Danbor hotsak aldaketarako bidean

1379. urtean fundatu zuten Oribe, eta **mendez mende herritarren bizitzak osatu du bertako historia. Horren adibide dira herriko kaleen izenak.** Gaur egun, hamarkadaz hamarkada osatzen joan den kondairak presente jarraitzen du herria osatzen duten toponimoetan.

TESTUA: INTZA UNANUE ARRUABARRENA

ARGAZKIAK: ONINTZA LETE ARRIETA

**G**izateriaren historia ez da bakarrik gertaera sozio-politiko handien historia, baizik eta gizabanako bakoitzarena, gizon-emakumeena, historia bera osatzen duten pertsonena. Gizakirik gabe historia nortasunik gabeko gertaeren eta daten pilaketa izango litzateke, inolako zentzurik gabekoa. Hala dio Fernando Alvarez historialariak *Arte Magica y hechiceria medieval* liburuan.

Orio (Noble y Leal Villa-Real de San Nikolas Orio), 1379an fundatu zuten, eta, mendez mende bertan bizi izan den jendearen bizitzek osatu dute herriaren historia, Alvarezen esanak dioen moduan.

Horren adibide dira herriko kaleen izenak. Erromatarren garaikoa da jabetza publikoetan zein jabetza pribatuetan mugarriak jartzeko ohitura. Antxon Agirre (1946-2014) etnografoak, *Orio, oro, hori* herriko historiaren liburuan, 1890. urteko Orioko kale, auzo eta tokien toponimoak ageri diren zerrenda argitaratu zuen. Hogeita sei, guztira. 1904. urtean, honako hauek osatzen zuten kale-izendegia: Plaza Publica, Plaza de la Feria, Avenida P. Lertxundi, San Nicolas, P. Urtesabel, P. Agandaburu, Antxiola, Arizaga eta Hoak. Gaur egun, hogeita zazpi toponimok osatzen dute Orio. Tartean, Almirante Oa, Antxiola, Aritzaga eta Urdaire kaleak eta Endaia plazak.

Kaleen izenak jakin badakizkigu. Baina, zergatik izan ziren herritar haiek gure herriaren historiaren parte? Antxon Agirrek aipatu, liburuan, historian nabarmendu diren zenbait herritarren datuak argitaratu zituen. *Arma karreran nabarmendu direnak, Espainiaren administrazioko goi mailako funtzionarioak ere izan dira beste batzuk; eta letretako pertsonak, apaiz erudituek eta garrantzi handiko bestelako lanbideetakoak ere bai.* Zerrenda osotik ondorengo oriotar historiko hauek berreskuratu ditu KARKARAK:

**Juanes de Urdaire (1550-1606).** Urdaire kalea. Orion jaio zen eta balea arrantzako kapitain izan zen. Itsas armategiko kapitain lanpostua sortu zenean Urdaire izendatu zuten; bera izan zen kargu horretan aritu zen lehena. Tierra Firme armadako almirantea. 1603. urtean Galeoietako almirantea izan zen.

**Antonio de Areizaga (?-1720).** Aritzaga kalea. Errege Armadako almirantea izan zen. San Pedro gerraontziko kapitaina.

**Tomas Endaya (XVIII.mendea).** Endaia Plaza. Bay probintziako gerra kapitaina izan zen, bi aldiz Manilako alkate eta Hegoaldeko Itsasoko Ibilbideko jenerala hiru (Filipinak) aldiz. 1710. urtean ejertzito guztiaren maisu izan zen; hau da, bigarren kargu inportanteena zuen.

**Gabriel de Hoa (XVI-XVII mendeak).** Almirante Oa kalea. Felipe III.a Erregearen idazkaria izan zen Indietako



“Historia zapalduen ikuspuntutik idatzi behar da iraganeko akatsak ez errepikatzeko.”





Errege Kontseiluan. Berak bideratuta, Erregeak 14.000 dukateko dirulaguntza eman zuen Orioko barra eta moilako arazoa konpontzeko.

**Manuel Antonio de Antxiola (XVIII.mendea).** Antxiola kalea. Urteetan Karlos III.aren ministro izan zen.

### Izenak aldatzeko nahia

Azken hilabeteotan, aipatutako bost kaleen izenen jatorriak herriko gazteen artean zabaldu dira, askoren haserrea eraginez. Erreakzio horrek bultzatuta, herriko gazteenek, iraileko azken asteburuan ospatu zituzten 10. Gazte Festei hasiera emateko, kaleen izenen aldaketarako bidea egin zuten, hausnarketa bultzatuz.

Herri indigenen aldeko eta konkistatzaileen kontrako diskurtso batekin eman zioten hasiera festari. Jarraian, aipatutako bost kaleen izenak aldatu zituzten, sinbolikoki, plaken gainean izen berrien biniloak jarri.

Pregoiari, ekintza horren testuingurua azaldu zuten, indigenen deshumanizazioa eta animalizazioa azalduz. *Konkistatzaile eta kolonizatzaileek egindako bortxaketetatik arrazen nahasketa, mestizajea sortu zen. Europarrek garbi utzi zuten nor ziren gizaki oso eta nor beren azpiko. Honela, arrazen espektro hori sailkatu zuten, supremazia zuria eraikiz. (...) Era berean, ozeano arteko merkataritza hasiko zen eta esklabo afrikarren salerosketa.*

India eta Amerikaren inbasioa azalduta, Orion *sarraski eta supremazia zuriaren eraikuntzan kolaboratu* dela helarazi zuten, Urdaire, Aritzaga, Endaia, Hoa eta Antxiolaren izenak miresteagatik. *Iraganeko akatsak ez errepikatzeke, historia zapalduen ikuspuntutik idatzi behar da. Alegia, bost oriotar hauek kriminal gisa hartu behar ditugu, eta ez heroï gisa.*

Horrela, hilabete luzez izen berrien bila lanean jardun da Gazte Festetako batzordea: *Gure herriaren historian zer esana eman duten emakumeak aurkitu nahi genituen,*

*merezi duten garrantzia emateko.* Bilaketa bide zaila izan dela adierazi dute, ordea, antolatzaileek. *Historia betidanik gizonetzkoek idatzi dutenez, ez da besterik ageri dokumentuetan.*

Egoeraren aurrean, hasierako ideia moldatu beharra izan zuten gazteek, eta lanketaren ondoren honakoak dira proposatu dituzten kaleen izen berriak:

**Inude kalea.** (Antxiola). Inudeak edo hazamak bere haurra ez den jaioberria bulartzen duten emakumeak dira. Mendebaldean, egun, ia desagerturik dagoen lanbidea bada ere, aurrehistorian hasi eta XIX. mendera arte oso ohiko lanbidea izan zen.

**Euskara kalea.** (Aritzaga). Orion euskarak duen garrantzia aitortzeko asmotan.

**Kixkurne kalea.** (Urdaire). Orioko Gazte Festetako pertsonaia nagusia da Kixkurne. Urte luzez, jaien hasiera eta amaiera berak eman du Kixkurneren igoera eta jaitziera bezala ezaguna den ekintzarekin.

**Gaupasero kalea.** (Almirante Oa). Azken urteotan ohitura bihurtu da San Pedro eta San Nikolas jaietan, KARKARAK ateratzen duen *gaupaseroen argazkia* Tragoxka tabernaren ondoko eskaileretan.

**Sorgin plaza.** (Endaia). Historian zehar euskal kulturak, sineskeriek, hizkuntzak zein bertako emakumeek makina bat bortizkeria jasan behar izan ditu. Horren adibide, besteak beste Pierre de Lancre epaileak salatu eta zigortu zituen zenbait *sorgin*. Hala, euskal sorginak emakume gaizto eta deabruzaleak bezala irudikatu izan dira. Herriko gazteek plaza horrekin sorginak benetan izan ziren modura gogoratu nahi dituzte, eta ez saldu duten modura.

Gazte Festetako batzordea Udalarekin elkartu da eta jaien aurretik kaleen izendegiaren aldaketan lanean ari zirela helarazi dute. Hausnarketa aurrera doa eta Udalak, herritarrekin eta gazteekin batera lanean jarraitu nahi du.











Goazen Orioko eta Aiako errezeta liburua idaztera. Lagunarteko otorduak; paper muturrean gordetako osagaiak eta kopuruak; etxeko jan ohiturak; baratza, errioa eta itsasoa; jatetxeetako sukaldeak... Mahai bueltan gauza asko egin daitezke, interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Ahal dela ez egin biak batera.

# “Euskaldunak eta senegaldarrak oso antzekoak gara janari kontuetan”

## Fama Thiam

### *Thieboudien* (arroza arrainarekin)



#### Osagaiak

Urraburua  
Arroza  
Lau azenario  
Berenjena bat  
Aza erdia  
Juka bat  
Kalabaza zatia  
Tomate saltsa  
kontzentratua

#### Nokosa egiteko:

Zaporea emateko  
pastila  
Sei baratxuri ale  
Piper berde erdia  
Tipula laurdena  
Pipermina  
Piperbeltza  
Perrexila  
Olioa  
Gatza

#### Nola egin?

*Nokos* izeneko nahasketa egin behar da, morteroan baratxuri aleak, piper berdea, tipula, pipermina, piperbeltza, perrexila, zaporea emateko pastilla eta gatza birrinduta, eta olio pixka bat botata. Arrainari zulotxo batzuk egin, nahasketa zulotxoetan sartu eta frijitu egin behar da lapikoan.

Arraina lapikotik ateratakoan, tomate saltsa bota behar da, horri frijitu arin bat eman, eta barazkiak eta ura gehitu behar zaizkio. Senegaldarrek barazkiak osorik edo bi zati eginda egosten dituzte, 45 minutuz.

Ondoren, barazkiak lapikotik atera behar dira, eta arroza gehitu behar zaio urari. 15 minutuz su baxuan egosten eduki, eta burruntzaliarekin buelta eman behar zaio arrozari, gaineko arroza ere ondo egin dadin. Beste 10 minutu utzi behar da egosten.

## AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

*Thieboudiena* (arroza arrainarekin) Senegalgo gastronomiaren ikur garrantzitsua da. XIX.mendean, Senegalgo Ndar edo Saint Louise hiria Afrika mendebaldeko komertzio gune garrantzitsua zen, eta munduko txoko desberdinetatik itsasontziz eramandako produktuak biltzen ziren bertan. Hala, bertako arraina, Europatik eta Ameriketatik ekarritako barazkiak eta garai bateko Indotxinako arroza oinarri hartuta, *Thieboudien* platera asmatu zuen Penda Mbaye sukaldariak. Egun plater horrek senegaldarrentzat duen garrantziaz jabetuta, Unescok munduko kultur ondare

materialgabea izendatu dezan prozesua abiatu nahi dute. *Thieboudienak* gordetzen dituen sekretuak ezagutzeko, Fama Thiam senegaldararren etxera joan da KARKARA.

#### ***Thieboudiena* garrantzitsua da senegaldarrentzat, ezta?**

Bai, oso maiz jaten dugu *Thieboudiena* senegaldarrok; eguneroko platera da, eta prestatzeko modu desberdinak ditugu. Oinarrian barazkiak, arraina eta arroza ditu, eta horiei osagai desberdinak gehitzen dizkiegu. Eskualdearen arabera ere zertxobait aldatzen da. Nik beti paellarekin konparatzen dut, paella ez baita berdin prestatzen Valentzian, Andaluzian edo Euskal Herrian.





“Sukaldeak presarik ez duela esaten dugu Senegalen.”

Lurralde bakoitzean bere ukitua ematen diozue, tokian tokiko produktuak erabiliz, eta gauza bera egiten dugu guk *Thieboudien*arekin ere.

**Denbora dezente hartu behar da *Thieboudiena* prestatzeko.**

Sukaldeak presarik ez duela esaten dugu Senegalen. Han emakumeak goizean goiz merkatura joaten dira, eta eguneko otorduak prestatzeko behar dituzten osagaiak erosten dituzte. *Thieboudien*ak, gainontzeko plater senegaldarrek bezala, bere denbora behar du, eta normalean lapikoak goiz osoa pasatzen du su baxuan

bor-borka. Aitortu behar dut, Senegalen mimo handiz egiten dela sukaldean, eta ahaleginak ematen ditu bere fruituak, oso gastronomia zapoetsua eta anitza baita gurea.

**Senegalen ohituraz emakumeek prestatzen dute janaria, baina gizonezkoak animatzen al dira sukaldean sartzeraz?**

Noski, gizartea aldatzen ari da. Europara lanera etorri diren senegaldarrek, esaterako, jaioterriko janaria jaten dute, eta beraiek prestatzen dute etxean. Segituan ikasten dute, eta praktikatu, emakumeek bezain ondo prestatzen dituzte *Thieboudiena* eta gainontzeko jakiak.

***Thieboudien*aren errezeta familiarengandik jaso al duzu?**

Txikitan, Senegalen bizi nintzenean, nire izeba janaria prestatzen ikusten nuen, eta lagundu egin nahi izaten nion. Hasieran, saltsa prestatzen edo arraina garbitzen uzten zidan, eta pixkanaka ikasten joan nintzen. Izan ere, asko gustatzen zait sukaldean aritzea; ikasteko jakin min handia izan dut beti.

**Zer ohitura dituzue otorduetan?**

Normalean familia handiak izaten dira Senegalen, eta tradizioz lurrian eserita, ontzi borobil handietatik jaten dugu, halako ontzi baten bueltan zortzi lagunek ere jan dezaketelako. Ontzia janariz beteta egoten den arren, jankide bakoitzak bere aurrean dagoen zatia soilik jan ohi du, besteei enbarazurik ez egiteko. Horregatik, ohitura da, janaria prestatu duenak arraina eta barazkiak gainontzekoen artean banatzea, familia guztiak denetik jan dezan.

Hala ere, gaur egun, mendebaldeko ohiturak hartzen ari dira Senegalgo familia asko. Guk, esaterako, mahaiaren bueltan jaten dugu, eta familia guztia elkartzen bagara, plater handi-handi batean zerbitzatzen dugu *Thieboudiena*. Denok bertatik jaten dugu, batzuk goilararekin eta nahi duenak eskuarekin. Hori bai, eskuarekin jateko teknika oso ongi ezagutu behar da, bestela zikin-zikin eginda bukatzen baita.

**Zein uste duzu dela *Thieboudien* eder bat prestatzeko sekretua?**

Nik uste dut sekretua janaria gogo onez eta ilusioz prestatzea dela. Horrez gain, behar duen denbora eskaini behar zaio, eta lapikoa su baxuan eduki, Euskal Herriko amonek janaria prestatzen duten moduan.

**Euskalduneri gustatzen al zaie *Thieboudiena*?**

Bai, gustatzen zaie, baina ezezaguna denez, hasieran beldurtuta probatzen dute askok. *Thieboudien*aren osagaiak Euskal Herriko gastronomian ere erabiltzen dituzue, baina horiek prestatzeko modu desberdina dugu. Horrez gain, guk ohituraz pipermina botatzen diogu janariari, eta horrek zenbait euskaldun atzera botatzen ditu. Dena dela, behin Senegalgo janaria probatu, eta bere bizitasunera eta zaporera ohitzen direnean, atsegin handiz jaten dute.

Azken finean, uste dut, euskaldunak eta senegaldarrak oso antzekoak garelako janari kontuetan. Hemen bezala, gure herrialdean ere garrantzia handia ematen baitiogu ondo jateari.

# Emakumeak baserriaren motorra eta oinarria



Urriaren 15a, landa eremuko emakumeen nazioarteko eguna izan zen, eta **emakume horiek egiten duten lana aitorzeko eta ikusarazteko** Aiako Agerresoro Handia baserriko Margari Zubeldiarekin, Orortegiko Karmen Urbietarekin eta Saberriko Rosa Aramendirekin izan da KARKARA.

## AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Landa eremuko biztanleriaren %48,02a emakumeak badira ere, emakume baserritarrek egiten duten lana ezezaguna da gizartearentzat, askotan, andreek baserriko lana etxe giroan, testuinguru informal batean egin izan dutelako.

Euskal Herriko baserri eredu bizi-iraupeneko izan da tradizionalki, eta egun, gutxi dira baserritik bakarrik bizi daitezkeen familiak. 60. hamarkadatik aurrera gertatu zen lehen aldaketa nabarmena baserri giroan; gizartearen beharrak aldatu zirenean, gizon askok baserria utzi behar izan baitzuten, industrian lan egin eta soldata etxera ekartzeko. Horregatik, azken hamarkadetan emakumeak

izan dira baserriko lanen ardura izan dutenak, baserriko motorra, eta bertako produktuak saltzeko arduradunak.

Horrela gogoratzen du haurtzaroa Margari Zubeldiak. *Ni Berrobiko baserri batean jaio nintzen. Aitak etxetik kanpo lan egiten zuen, eta amak kudeatzen zuen baserria. Ama emakume gogorra zen, baserrian jaioa eta beti lanerako prest zegoena; gure familiaren ardatza eta oinarria. Lan handia egin behar izaten zen baserrian, pentsa, gu haurrak ginenean, eskolara joaterako behiak biltzen genituen eskuz.*

*Aitonak asko laguntzen zion amari, baina hura hil zenean, hiru anai-arreben artean zaharrena nintzenez, eskola utzi nuen, baserrian lan egiteko. Orduan amak eta*





**Margari Zubeldia.** AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

*nik hartu genuen baserriaren ardura.*

Amarengandik ikasi zuen Zubeldiak baserria kudeatzen, eta gaztea zenean Andatzako Agerresoro Handia baserrira ezkondu zen. *Beti irudikatu izan dut nire etorkizuna baserri giroan. Txikitatik izan dut baserriko lanekiko grina. Amak esaten zidan, oso txikia nintzela, baratzera bidaltzen ninduela barazki bila; nire kapaxo txikia eta labana hartuta joaten omen nintzen.* Oraindik ere, bere lanarekiko ilusioari bizi-bizirik eusten dio Zubeldiak. *Landa eremua maite dut, eta gozatu egiten dut baratzeko lanak egiten, animaliak zaintzen edo basoan egurra mozten.* Orain kalean bizi beharko lukeela esanez gero, *asko sufrituko lukeela aitortu du. Kaleak gauza onak izango ditu, baina baserrian lasai eta aske sentitzen naiz. Hau da nire ingurua.*

### **Baserriko bizimodua**

Baserri mundua irudikatzen denean gizonaren figura nabarmentzen da beti, baina erreportajeko hiru protagonistek argi dute, emakume baserritarrek gizonezkoek bezainbeste lan, edo gehiago egiten dutela. Baserriko lanez gain, etxeko eta zaintza lanen ardura ere izaten baitute. *Nik denetik egin izan dut baserrian. Azken hamarkadetan asko aldatu da baserriko lana, lehen fisikoagoa zela esango nuke nik. Dena dela, gaur egun, teknologia berriek baserriko lana erraztu duten arren, gainean egon behar da, ia 24 ordu.*

Orortegiko Karmen Urbieta eta familia, esaterako, artzainak dira. *Urte osoan jarduten gara ardiekin lanean, baina lan karga handiena azarotik uztaileira bitartean izaten dugu. Azaroan arkumeak jaiotzen hasten dira, eta ondoren gazta egiten hasten gara uztaileira arte. Astean bi egun libratzen dugu gazta egitetik, asteazkenetan eta igandeetan. Bi egun horietan ardiak bildu behar izaten ditugu goiz eta arratsalde. Udaberrian ardiak mendira eramaten ditugu, eta bi astetik behin igotzen gara, ea dena ondo dagoen ikuskatzera. Ardiak larrean dauden bitartean, guk baserriko eta nekazal turismoa lanak egiten ditugu, beti baitago zeregina.*

Azken finean, baserrikoa ez da lanbide soila, *bizimodua* dela argi dute emakume baserritarrek. *Hori da baserriaren erronketako bat. Bizimodu lotua da, 24 orduz egon behar delako gainean, eta gaur egun gizartearentzat garrantzitsua den aisialdirako denbora gutxi geratzen delako. Baserriaren bueltan osatu behar da etxeko bizimodua.*

### **Emakume baserritarren elkartea**

Baserriko emakumeek izaten zuten lan kargaz ohartuta, duela hamabi urte emakume talde batek Hitzez emakume baserritarren elkartea sortu zuen Urola Kosta bailaran. Urdanetakoa Saberri baserriko Rosa Aramendi izan zen horietako bat. Egun baserriko zereginak, etxetik kanpora egindako lanarekin uztartzen ditu



Rosa Aramendi. UTZITAKOA

Aramendik, eta urteetan Hitzez elkarteko ordezkaria eta emakume baserritarren ahotsa izan da. *Ni herrian jaio nintzen, baina nire gurasoak baserrian hazitakoak zirenez, txikitatik izan nuen harreman estua baserri giroarekin. Hala ere, ezkondu eta baserrira bizitzera etorri nintzenean, orduan ezagutu nuen emakume baserritarrek bizi zuten errealitatea. Konturatu nintzen bizimodu lotua zela, gogorra.*

Azken hiru hamarkadetan gauzak asko aldatu badira ere, emakume baserritarrek tradizionalki *rol jakin batzuk bete* dituzte, eta horiek *belaunaldiz belaunaldi, zalantzan jarri gabe*, transmititu direla uste du Aramendik: *Oinordekotza izatea oso garrantzitsua zen, horrez gain, etxeko lanak, baserriko lanak eta zaintza lanak ere emakumeak bere gain hartzen zituen. Lana, lana eta lana, besterik ez zegoen. Baserriari eustea zen garrantzitsuena, eta emakume baserritar askok betebeharrori beren buruaren gainetik jartzen zuten, azaldu du Saberrikoak.*

Hala, rol banaketa horrekin ados ez zegoen emakume talde bat biltzen hasi zen. Ohartu ziren denek testuinguru antzekoa bizi zutelara, eta ikusi zuten, ordura arte norberarenak ziren arazoak, kolektiboak zirela, emakume baserritar guztiek bizi zituztela, alegia. *Arazo horiek beste emakumeekin elkarbanatzeak indartu egin gintuen, nahiz eta etxera bueltatzen ginenean, gauzek beti bezala jarraitu. Lanketa horrek ahaldundu egin gintuen, eta handik aurrera urrats garrantzitsuak eman genituen.*

Margari Zubeldia: “Azken hamarkadetan asko aldatu da baserriko lana.”

Rosa Aramendi: “Isilpean gorde izan den errealitatea azaleratzen hasi ginen.”

Karmen Urbietta: “Daukagun ingurua baserritarroi esker dugu. Bestela dena zikinak hartuko luke.”





**Karmen Urbietta.** INTZA UNANUE ARRUABARRENA

Emakume baserritarrek, ordura arte landu gabeko gai garrantzitsu asko jorratu dituzte urte hauetan guztietan, tailer eta ikastaroen bidez, eta erakundeen aitortza ere jaso dute. *Isilpean gorde izan den errealitatea azaleratzen hasi ginen, eta oso begi onez ikusi zuen gizarteak, kaletarrek nahiz baserritarrek. Izan ere, hasieratik, argi utzi genuen emakume baserritarri merezi duen tokia ematea zela gure helburua, gure lana ikusaraztea, baina sekula ez gizonaen aurka joatea.*

### **Etorkizun ezezaguna**

Gizon-emakume dikotomiatik harago, arazoaren oinarrian baserri munduaren gainbehera dagoela uste du Margari Zubeldiak. *Gizarteak ez du estimatzen baserritarren lana, baina zer izango litzateke gure Euskal Herria baserririk gabe? Zergatik ditugu inguru polit hauek eta produktu zoragarriak? Baserritarrok egiten dugun lana ezinbestekoa da gure Euskal Herri berde eta zoragarria mantentzeko.* Iritzi berekoa da Orortegiko Karmen Urbietta ere: *Gizarteak konturatu behar du, daukagun ingurua baserritarroi esker dugula, bestela dena zikinak hartuko luke eta.*

Agerresoro Handikoaren ustez, baserri mundua ez du aintzat hartzen gizarteak, eta halabeharrez, egun gero eta gutxiago dira baserritik bizi diren familiak. *Ni Andatzara etorri nintzenean baserri txiki pila bat genituen inguruan, baina gaur egun oso gutxi geratzen gara. Guk duela 20 urte*

*pabilioi handia egin genuen, behi gehiago ekarri genituen, eta baserritik bizitzeko apustua egin genuen, baina abere kopuru oso handia behar da horretarako, esnea erosten diguten prezioan ez baita errentagarria ateratzen. Azken bi hamarkadetan ez da igo esnearen prezioa, baina bizimodua, eta pentsuen eta tresneriaren prezioa asko igo dira. Horrela, ezinezkoa da baserria mantentzea.*

Argi dute baserriak etorkizuna izan dezan, gizartearen beharretan oinarrituko aukera berriak probatu beharko direla, bide berriak ireki. *Gu, esaterako, hutsetik hasi ginen. Senarrarekin baserria hartzea eta hortik bizitzea erabaki genuen. Aldaketa handia izan zen guretzat, baina pixkanaka bidea egiten joan gara. Ez genekien gazta egiten, eta ikastaroetara joanez ikasi genuen; Elizabet Arrillaga eta Karmen Esnaola artzainek ere asko lagundu ziguten. Gaur egun, Orortegiko gazta ezaguna da eta hainbat sari ere jaso ditu, baina ikasten jarraitzen du Karmen Urbietak. Niri asko gustatzen zait egiten dudana; gainera, nekazal turismo bat ere badugu eta beti gaude jende desberdinarekin harremanetan. Oso aberasgarria da.*

Zailtasunak zailtasun, baserriko bizimodua maite dute elkarrizketatutako hiru emakumeek, eta bertan ikusten dute beren etorkizuna. Orain arte egin duten bezala, uste dute *garai berrietara egokitzea* izango dela baserriak bizirik eusteko gakoa, baina beti, *emakume baserritarrei merezi duten tokia emanda.*



Jorge Oteiza. Oteiza Museoko Artxibotik. MARITXU URTETA

# Oteiza Arantzazun Arantzazu Oteizan

Aurten 11 urte bete dira Oteiza jaio zenetik, eta 50, bere **obrarik esanguratsuena Arantzazuko basilikan jarri zuenetik: 14** Apostoluak eta Pietatea.



TESTUA: RIKARDO UZKUDUN EIZMENDI

111 urte bete dira Jorge Oteiza jaio zenetik, eta 50, bere obrarik esanguratsuena bukatu zela. Orduko Obispoak lanak galarazi eta 15 urte bide bazterrean egon eta gero jarri zituzten 1969an Arantzazuko apostoluen frisoa eta Pietatea. Erlijio eta arte aldetik ez ezik, sinbolikoki ere inportantzia ikaragarria du euskaldunontzat geroztik Arantzazuk.

### Oteiza Arantzazun

1950ean hasi zen Oteizaren Arantzazuko historia. Frantziskotarrek lehiaketa bat antolatu zuten, basilika berritu eta handitzeko beharra ikusita. Francisco Javier Saenz de Oiza eta Luis Laorga arkitektoek osatutako taldeak irabazi zuen lehiaketa. Urte bereko irailaren 9an, Arantzazuko egunean, hasi zituzten gaur egun ezagutzen dugun basilika arantzaduna eraikitzen. Urtebete geroago, arkitektoek fatxadarako zuten asmoa azaldu zuten: Ama Birjinaren irudi bat izango zen, eta fatxadako hamabi apostoluen tailaz osatutako friso batean oinarrituko zen. Hori Jorge Oteizak egingo zuen; beste zenbait eskultoreen artean aukeratu zuten.

1951ko udan hasi zen Oteiza proiektuan. Hasieran aurkeztutako egitasmo hartatik, bozeto, proba eta diseinu desberdin ugari egin zituen. Jorgerentzat ardura handia zen, eta arkitektoekin eta frantziskotarrekin elkarlanean aritu zen hasieratik. Kontuan hartzekoa da, frantziskotarrak herriz herri eta baserriz baserri ibili zirela diru eske, baita Aian eta Orion ere, santutegia eraitzeko. Arantzazun ez ezik, aurretik Madrilan ere lanean aritu zen Oteiza bere obra zehazten. Besteak beste, orduan erabaki zuen 12 beharrean 14 apostolu jartzea.

1953an, lehen aldiz, Oteizaren eskulturekiko errezeloak sortu ziren frantziskotarren artean. 1954ko ilbeltzean, informazioa eskatu zuen, formalki lehendabiziko aldiz, Donostiako elizbarrutiko bikario jeneralak, eta 1955eko udan lanak gerarazi zituzten Erromako Arte Sakratuaren Pontifize batzorde zentralak egindako txosten batean oinarrituta. Uztailaren 1ean Oteizak Arantzazu abandonatu zuen, eta abuztuaren 30ean bedeinkatu eta zabaldu zuten basilika, apostolu eta pietaterik gabe. Santutegirako errepide bazterrean abandonatuta geratu ziren ordurako tailatuta zeuden lau apostoluak eta harrizko beste blokeak.

1961. urtetik aurrera, ordea, galarazpenaren kontrako ahotsak entzuten hasi ziren, batean eta bestean. Presio horien ondorioz, eta joan-etorri batzuen ondoren, 1966an, agintari erlijiosoen behin betiko baimena sinatu zuten Oteizak basilikako fatxadan estatuarria jartzeko. Hala eta guztiz ere, 1968ko azaroa arte ez zen Oteiza Arantzazura itzuli. Azkenik, hargin artean kasik urtebeteko lana egin ondoren, 1969ko urriaren 21ean, bere urtebetetze egunean, Pietatea jarri eta hil bereko 25ean bukatutzat eman zuen obra Oteizak.

“Kontuan hartzekoa da, Arantzazu berritzeko frantziskotarrak herriz herri eta baserriz baserri ibili zirela diru eske, baita Aian eta Orion ere.”

## Arantzazu Oteizan

Oteiza Arantzazuko estatuaria egiteko aukeratu zutenean, haren obra abstrakzio fase batean zegoen. Horregatik, irudikapen erlijiosoko enkarguari modernitatetik hurbiltzeko ahalegina egin zuen. Elena Martin Oteiza Museoko kontserbatzailearen arabera, Oteizak hiru ideia nagusi uztartu nahi zituen Arantzazun: Ideia eskultorikoa, bere bide artistikoari zegokiona; ideia erlijiosoa, enkarguari berari zegokiona; eta ideia sinbolikoa, iruditeria kolektiboari zegokiona.

Lehenengo ideari dagokionez, eskultorea masa-eskulturatik energia-eskulturarako pausoa definitzen zebilen; bere ustez, zenbat eta txikiagoa izan materia ukigarriaren proportzioa, hainbat eta aktiboagoa baitzen horri zegokion espazio librea. Figuraziotik abstrakziora bidean zebilen, dagoenaren eta ez dagoenaren arteko talka ikertzen konfliktu etengabea. Hustasun aktiboak aurkitzea zen bere xedea, zerbait esaten zuten hustasunak. Bilakaera horren hasiera, Iruñeko Gaztelu plazan dagoen *Unitate hirukoitz eta arina* (jandako sagar baten forma duena) obra izan zela esan daiteke, 1950ean egina.

Bigarren ideien barruan, enkargu erlijioso bat zenez, bueltaka ibili zen bozeto desberdinekin. Adibidez, Ama Birjinarekin proba asko egin zituen: Umea altzoan zuela molde figuratiboan (garai hartakoa da, Kukuarriko Ama Birjinaren lehenengo bertsioa, 1953koa); Jasokunde moduan zeruratze bidean; eta, azkenik, Pietate moduan, haurra lurrean etzanda.

Hirugarren ideari dagokionez, esan beharra dago garai hartako fatxadan Ama Birjinaren inguruan erliebe batzuk jartzea aurreikusi zuela. Erliebe horiek elementu sinboliko ugari zituzten, zeinak euskal gizartearen iruditeria kolektiboan zeuden. Diseinu eta probetan ikus daitekeenez, erliebe horietan besteak beste, nekazariak, bertsolariak eta dantzariak marraztu zituen, Angelusa errezatzen, bertsotan edo Makil-dantza dantzatzen. Martinen esanetan, Oteizarentzat oso inportantea zen berak txikitzen jasotako kultur adierazpenak fatxadan erakustea. Seguruenera, nekazari, bertsolari eta dantzari horiek Orion eta inguruetan ikusi zituen. Martinek esaten du, Oteiza Ameriketara (1948an bueltatu zen handik) ohartu zela bere kulturaren garrantziaz, euskal kulturaren garrantziaz. Horregatik zen ohore bat berarentzat Arantzazuko obra egitea.

Baina, zer egin zuen 1955etik aurrera Oteizak, Arantzazuko debekutik? Gogoratu beharra dago bere eskultura lanari 1958an eman ziola amaiera. Egina zuen egin beharrekoa, bere bilaketa esperimentalak, eta hortik aurrera, batez ere, idazten hasi zen. Ordukoa da berebiziko inportantzia izan zuen *Quosque tandem* saiakera liburua.

Hortaz, zergatik bueltatu zen 1968an, berriz ere, apostoluak egitera? Zer interes zuen? Martinek esaten duenez, *Oteizak bazekien apostoluek funtzionatu egingo zutela, eta halaxe izan zen*. Horregatik, nahiz eta bere



Friso materialean sortutako piezei forma ematen. OTEIZA MUSEOKO ARTXIBOA

“Oteizak hiru ideia nagusi uztartu nahi zituen Arantzazun: eskultorikoa, erlijiosoa eta sinbolikoa.”



Apostoluekin errepede bazterrean. OTEIZA MUSEOKO ARTXIBOA





J. Oteiza, Arantzazuko Santutegiko fatxada nagusiaren eraikitze lanetan. ARANTZAZUKO ARTXIBOA.

lanaren azken obra ez izan eta ezin daitekeen hartu bere bilaketaren gailur moduan, Martinen esanetan, zalantzarik ez dago bere obrarik gorena eta sinbolikoena izan zela Arantzazu; *ikusitako besterik ez dago zer inportantzia duen gaur egun.*

### Ubera amaigabea

Urteurren honen harira, izugarri pila dira Oteizari buruz agertu diren liburuak eta artikuluak, haren gaineko aipamenak, haren lanen erakusketak. *Oteiza eta Arantzazuko estatuaria 1950-1969* izeneko erakusketa zabalik egon da urriaren 27ra arte Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Pasai San Juango Victor Hugo museoak beste bat izan zuen irailaren 29ra arte: *Oteiza: marrazkiak, estanpak, hitzak eta eskulturak*. Abuztuan Iñaki Arrillaga oriotarrak Zumaian eskultorearen gaineko *Zergatik hamalau?* erakusketa jarri zuen. Irailaren 22an, *Esku harriak: Oteizaren (h)aria* lana taularatu zuten Gernikan, Oteizaren mundu ikuskera, dantza, musika, eskultura eta bertsolaritzaren bidez adierazteko, Oteizaren iruditeria modu artistikoan erakusteko. Urriaren 1ean *Arantzazu Harriz-herri* dokumentala estreinatu zuten Donostian, Nabarralde elkarteak egina. Urriaren 3an, ETBleko 48 ordu saioak Oteiza izan zuen protagonista nagusi. Urriaren 4an Deban topaketa bat izan zen, Oteizak han bertan sortutako arte eskolako artista batzuekin.

## ZERGATIK HAMALAU?

**A**skotan galdetu zioten Oteizari, *zergatik hamalau apostolu?* Oriotarrok ere askotan entzun dugu traineruan hamalau direlako erantzun zuela. Berak, ordea, hasieran behintzat, *kabitzen zaizkidanak sartu ditut* esan zuen. Baina 14 sartzen bazitzaizkion nolatan ez zitzaizkion ba 12 sartuko? Galdera horren erantzuna, Martinen arabera, bere kontzeptu eskultorikoan kokatu behar da. Frisoaren sekuentzia erritmikoa zuen buruan. Basilikako bi dorreak apostoluen molde beraren errepikapen eta konbinazioarekin elkartu nahi zituen, hustasunen eta betetasunen txandakatzeekin. Hori lortzeko egin omen zituen hamalau; hamabirekin zabalegiak geratzen zitzaizkiolako.

Zalantzarik ez dagoena da lehenengo apostoluaren bisaia, aurpegiera, Ignazio Sarasuan inspiratuta egin zuela, euskaldun prototipoa bera, antza. Behin hori definituta, eta gorputzeko hustasunak eta hezurdura garbi zituela, apostoluak egiten joan zen. Bi izkinakoak erdira begira, beste batzuk berrikerian, eta denak, aldi berean, goiko Pietateari begira bezala. Izena ere jarri zion apostolu bakoitzari; esate baterako, hamabigarrena, San Tomas, besoekin aurpegia tapatzen; eta hamahirugarrena, Judas, bizkarka.



# Zarautz

Hileta Zerbitzuak

- > Hilerrien kudeaketa
- > Hileta zerbitzu orokorrak
- > Zerbitzu iraunkorra



# Harrespil

Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA **GELATTO**



**OGI BERRI**

943 578 176  
Herriko enparantzan

**Izoki naturalak Opilak**



**KRAV MAGA**

KARELA Erriberak 1, 20810 Orio · 943 894 428 · orio@bpxport.es

Informazio gehiago harreran/ Más información en la entrada

**Katu Moria**  
albatzaritza klinika

ESTROPALARI, 10  
20810 ORIO  
tel. 943 11 66 99

Larrialdia: 668 89 11 29

www.katumoria.com



**niko**  
taberna



Karta · Pintxo tradizionalak  
Okindegia

Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943 53 61 27

**Portu**  
ERRETEGIA

Santio Erreka Auzoa, 2/g  
943 89 44 34  
20809 AIA-ORIO

*kazolatik laseriko oilaskoan  
parirlako erretikiak eguneko menua...*

**SU KIA**  
TABERNA · JATETXEA

On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TF.: 943 892 129  
ABAROMENDI 38, 1. BAXUA

**KOLON TXIKI**  
endaritegia  
jatekeak

Herriko Enparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44



PIZZERIA



KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10  
TELEFONOA: 943 24 89 46

egin zaitetz laguntzaile

**Karkara**  
karkarategi



**kutixi**  
kafetegia  
GOSARI GOXOAK

Aritzaga 9, 20810 Orio  
TF: 943 13 15 17



**ITZALA**

kartotan jokatzeko  
apropositu

tel. 943 83 12 59



**Zaragueta**  
Herri Eskola **orio**

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

**Carmen eta Txomin**  
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47



## ZINGIRA ESKOLA



# “Naturarekin kontaktuan egotea da gehien gustatzen zaidana”

**Gemma Serra Deu**

Artzaina

**Non jaio zinen eta noiztik zara artzain?**

Katalunian jaio nintzen. Duela 6 urte erosi nituen ardiak eta handik 3 urtera egin nintzen artzain.

**Nola izena du zure baserriak eta non dago?**

*Makatza Borda* izena du eta Aian dago, Zingira Eskolaren gainean zehazki.

**Zein animalia mota dituzu zure baserrian?**

Egia esan, animalia asko bizi dira gure baserrian: ardiak, katuak, behorra, kanarioak, txakurrak, ahuntza, oiloak eta erleak.

**Zenbat ardi daukazu? Ba al dute izenik?**

150 ardi ditut eta niretzat bereziak direnei jartzen diet izena. Adibidez, *Rizos*, *Helechitos* edo *Izar* izena dutenak daude.

**Ihes egiten al dute ardiek?**

Bai, nik partzela desberdinetan edukitzen ditut belarra jaten. Batzuetan, ordea, ondoko partzelan belar goxoagoa ikusten badute, zulotxo batetik bertara joaten dira. Beti berdinak izaten dira ihes egiten

dutenak. Gero besteei deitu, eta denak atzetik joaten dira. Gero zuloa tapatu beharra izaten dugu.

**Ardiak zenbat urte bizitzen dira? Zein da eduki duzun ardirik zaharrena?**

Daramaten bizitzaren arabera, gehiago edo gutxiago bizi dira. Niri ondo zaintzea gustatzen zait eta nireak 10 urte bizi dira gutxi gorabehera. Eduki dudan ardirik zaharrenak 12 urte zituen, gaixota hil zen.

**Gazta egiten duzu? Eta beste produkturik ekoizten al duzu?**

Gazta egiten dutenei esnea saltzen diet. Bestetik, arrautzak, propoleoa eta ezta egiten ditut. Ezta saldu egiten dut.

**Lastoa zeuk biltzen duzu, ala erosi egiten duzu?**

Lasto gehiena erosi egiten dut, baina garoa ere erabiltzen dut azpitarako, eta garoa neuk biltzen dut.

**Zer da zure lanetik gehien gustatzen zaizuna?**

Animaliekin egotea eta aire librean ibiltzea. Naturarekin kontaktuan egotea da gehien gustatzen zaidana.



Ibai Yarza eta Peru Calvo

## Lana eta dirua

**B**adakizue futbolariak zenbat euro irabazten dituzten segunduro?

Ez da ulergarria kale garbitzaile baten soldata hain txikia izatea futbolari batenarekin alderatuz. Berak kalea garbitzen du, eta futbolari batek zer egiten du?

Imajinatu Orioko edo Aiako kale garbitzaile bat egunero telebistan ateratzen, kale izkina bakoitza nola garbitzen duen kontatzen, erratzarekin egindako jokaldiak, itsatsitako txikleak kentzeko teknikak, arratoiekin bitzitako anekdotak azaldu.

Gero, kaletik paseatzen dabilenean, denek nahiko lukete bere argazki edo autofrafo bat.

Horrela, haurrei galdetuz gero handitzean zer izan nahi duten, esango lukete:

-Kale garbitzaileak.

**Ez da ulergarria kale garbitzaile baten soldata hain txikia izatea.**

# Karkara<sup>30</sup>urte

karkara.eus



*10 urte eta olatu  
berriak gurekin*

Eneritz Odriozola

***“Gogoan dut Patek erredakzioko lanak utzi eta nola Patxi Zapparro etorri zen. Nola lagun onak egin ginen. Nola bere iraultzatxoa KARKARARA ekarri zuen, hardcorearekin batera”.***

**G**ogoan dut nire lehenengo notizia. 2004ko Kilometroak Orio-Zarautzen izango zirela eta *Itsaso zahar olatu berri* leloa izango zuela iragartzeko idatzi nuen hura. Zenbat buelta eman nizkion notizia hari! Patek zenbat lagundu zidan. Zenbat ikasi nuen berarekin eta Jabirekin, Anarekin eta Mirenekin. Zenbat estimatzen zaituztedan. Eutsi gogor, Cowie anderea!

Gogoan dut Patek erredakzioko lanak utzi eta nola Patxi *Zapparro* etorri zen. Nola lagun onak egin ginen. Nola bere iraultzatxoa KARKARARA ekarri zuen, hardcorearekin batera. Photoshoparekin nola biziatu zen, eta, Lazkao Txiki eta Laxarteri *corazon de sapo*-ren kamisetak jarri zizkien. Kaleri nola greñak jarri zizkion. Edo Korrikako txantxetako portada hark zenbat denbora egin zuen bulegoan zintzilik. Torrotxo eta biok korrika portadan: ze ustel aurpegi genituen! Korrika hartan argazkilari ibili zen Patxi. Loko moto gidari; Patxi pakete argazkiak egiten.

Gogoan dut atxilotu aurretik Usurbilen nola topatu ginen. Sagardo egunez. Ze gustura egon ginen berriketan. Ordudanik gure elkarrizketak idatzizkoak izan dira. Ez dira gutun asko izan. Baina zeinen pozik jaso ditudan, Patxi!

Eta zer den bizitza, kamarada. Hilabeteko tartean alabak izan ditugula! 2016ko abenduan jaio zen Lur eta ondorengo urtarrilean Xua. Lur hiru urteko gelan dabil. Xua, urtarrilean, hiru urteak beteta, Usurbilera etorriko da. Gurasoak kartzelan utzita. Itsaso zaharrak olatu berria ekarri du. Hor gure txikiak! Itsaso zaharrak notizia berri-onak ekar ditzala, arren. Muxu estu bana familia. Xua gurasoekin etxera!



eta hamaika bitxikeria



Ana Iturain

“Miss Duela 25 urte”

***“Gogoan gordetzen ditut, gordetzen ditudanez, inguruko baserrietan pasatako arratsalde ederrak... Zenbat kontu, zenbat bizipen, eta zein euskara ederra”.***

Aurreko zenbakiak irakurrita, zain nengoen noiz jasoko nuen KARKARAKoen deia nik ere nire bitxikeriak kontatzeko. Eta pentsatzen hasi nintzen ze kontu nezakeen original eta bitxi. Betiko anekdotak etorri zitzaizkidan burura: paperontzia erre genueneko, soziedadean egindako afari ederrak, azken momentuko estuasunak, herritarren esker ona eta kezak, Postakoarekin izandako tirabirak... Ezer originalik ez, ordea. Gainera, nire aurretik hainbatek idatzi dituzte haien oroitzapenak. Baita bertsoetan ere, alajaina!

Horretan ari nintzela gogoratu nituen Ainarak-eta banatu zizkiguten Miss/Mister sariak (aurreko zenbaki batean kontatu zuen Ainarak). Niri *Miss duela 25 urte* titulua egokitu zitzaidan; izan ere, atal hori nik idazten nuen, hasieran behintzat. Eta titulu egokia eman zidatela pentsatu nuen. KARKARAn egindako lanen artean, kontu zaharrak biltzea izan bainuen gustukoena.

*Duela 25 urte* horretaz aparte, *Gure Baserriak*-edo izeneko atal bat izan genuen, eta beste bat herriko zaharren oroitzapen eta garai bateko kontuak jasotzen zituena. Gogoan gordetzen ditut, gordetzen ditudanez, inguruko baserrietan pasatako arratsalde ederrak. Etxeberri, Aldape, Olatxo, Jaurita, Torretxo, Errota Xahar... Erramun Lino, Nati Katxina... Zenbat kontu, zenbat bizipen, eta zein euskara ederra.

Pena bakarra dut, haiei grabatutako zintak gorde ez izana, eta nire inguruko zaharrek gehiago hitz egin ez izana. Askotan, galdu arte, ez gara konturatzen ze altxor izan dugun ondoan.

## Gizartea

## Bota dute Kofradia Zaharreko eraikina



Kofradia Zaharra. Botatzeko lanak hasi aurretik.



Urriaren 9an hasi ziren eraikinaren kanpoko ho

## Euskara

## Martxan da aurtengo Euskaraz Gazte literatur lehiaketa

Aurten ere Euskaraz Gazte literatur lehiaketa jarri du martxan Orioko Udalak, gazteen artean *idazteko zaletasuna suspertzeko* asmoz. Zabalik egongo da aukezteko epea, azaroaren 15era arte, eta 16 urtetik gorako oriotarrek zein aiarrek hartu dezakete parte lehiaketan. Ohi bezala, ipuinen atala eta bertso edo olerkien atala barnebilduko ditu lehiaketak.

Lanak euskaraz aurkeztu beharko dituzte gazteek; luzera eta gaia, aldiz, bakoitzak erabaki dezake. Bestalde, antolatzaileek gogorarazi dute lanaren titulua baino ezingo dela agerian egon hura aurkeztean; alegia, egilearen datuak ezingo dira kanpoaldean ikusgai egon, gutun-azal itxi batean gordeta baizik. Parte hartzaileek izen-abizenak, adina, telefonoa eta

helbide elektronikoa zehaztu beharko dituzte bertan. Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuan edota Aiako kultur etxean aurkeztu behar dira lanak. 300 euro eskuratuko dituzte lehen saria jasotzen dutenek. 200 eurokoa izango da bigarren saria, eta hirugarrena, 150 eurokoa. Accesitei dagokienez, 100 eurokoa izango da bakoitza.

## Kultura

## Andatzako Erromeria Elkarteak lankidetzeta hitzarmena sinatu du Udalarekin



Aiako Udalak eta Andatzako Erromeria Elkarteak hitzarmen berria sinatu dute -aurreko agintaldia ere diru-laguntza eman zuten- erromeria hau bultzatzeko eta Andatzako kultur eskaintza mantentzeko. Hitzarmenarekin lau urterako konpromisoa hartu dute, eta horren arabera, Udalak urtero 3.000 euroko diru-laguntza emango du, Nekane Arrizabalaga Aiako alkatearen esanetan, *trikiti doinuek astebururo Andatzako auzoan jarrai dezaten*.





ormak eraisten.



Urriaren 10ean ateratako argazkia, eraikina botata.

## Gizartea

### Zaharren Babeslekuak egun pasa antolatu du Bilbora

Zaharren Babeslekuak Bilbora irteera antolatu du azaroaren 13rako, asteazkena. Goizean, 9:00etan izango da irteera, eta ohi, bezala autobuseko eserlekua zozketaz erabakiko da. Bilbora iritsi eta denbora libreza izango dute bidaiariek bazkaltzeko ordura arte. Ibañez erretegian izango da bazkaria,

eta honakoa da menua: Bakailao entsalada, ganbak plantxan, azpizuna parrillan, pantxineta, edaria eta kafea. Txartelak erosteko aukera. Azaroaren 5ean izango da, asteartearekin, 16:00etatik 18:00etara bitartean, Zaharren Babeslekuetan. 35euro kostako da egun pasak.

## Jaiak

### Datozen San Nikolas jaiak ez dira Herriko Plazan ospatuko

Plazako obrak direla eta aurtengo San Nikolas jaietako festa gunea Ikastola aurreko plazara lekualdatuko da. Festa batzordeak festa guneari indarra ematea erabaki du antolatuko diren kultur aisialdi ekitaldiekin. Horrela, aurtengoa, ez da tiobiborik izango. Gunean, karpa handi bat jarriko da eta bertan egongo dira oholtza eta txosna musika ekitaldi guztiak bertan egiteko. Festen programazio osoa azaroko lehenengo asteetan egingo du publiko batzordeak.



## Bertsolaritza

### Iñaki Gurrutxagak Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-laurdena jokatuko du

Aurrera doa Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Urriaren 19an hasiera eman zioten fase berriari; final-laurdenena, hain zuzen. Fase berrian parte hartzeko txartela eskuratu du Iñaki Gurrutxagak, lortutako puntuazioari esker. Hilaren 27an, igande honetan, jokatuko den final-laurdenean abestuko du oriotarrak, Azpeitiko Soreasu antzokian. Bost aurkari izango ditu oholtza gainean: Alaia Martin, Amaia Iturriotz, Nerea Elustondo, Oihana Iguaran eta Iñigo Mantzizidor *Mantxi* zarauztarra. 17:00etan izango da saioa, eta Imanol Artolak beteko ditu aurkezle lanak.

**AZOKA**

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Galdutakoak**

• Urrezko pultsera galdut. Sara 19/08/1996 du grabatua. Garrantzi pertsonal handia du. Mesedez aurkitu ezkerro, jakinarazi. Eskerrik asko. Tf: 663-95 99 00

**Alokairua**

• Logela alokagai, etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tf: 652-55 15 50

**Lan bila**

• Asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko prest. Paperak eta gomendio orriekin. Patricia. Tf: 674-12 32 93

• Ume zaintzan zein etxeko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tf: 638-73 05 44

• Neska bat lan bila. Etxeko lanak, umeen zein adinakoan zaintza, garbiketa lanak, asteburuetan zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia eta erreferentziakin. Tf: 661-13 32 95

• Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa egiteko eta klase partikularrak emateko. Lehen hezkuntzan graduatua.

Umeekin esperientzia handikoa. Tf: 636-31 22 31

• Neska lan bila. Barnezaintzailea, garbiketa lanak eta zaintza. Esperientziaduna, Orion bizi naiz. Marlin Tf: 632-58 23 65

• Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tf: 676-44 13 27

• Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tf: 642-69 60 38

• Emakume venezuelar bat bere zerbitzuak eskaintzeko prest. Jende helduarekin ospitalean egoteko prest, egunez eta gauez. Tf: 688-61 04 52

• Lan bila nabil etxe garbiketarako egiteko prest. Tf: 642-69 94 48

• Lan bila nabil etxe garbiketarako eta haurrak zein helduak zaintzeko prest. Orduka lan egiteko. Tf: 643-66 23 89

• Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tf: 631-82 44 52

• Neska arduratsua lan bila dabil. Barneko zein kanpoko langile bezala adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Karlene. Tf: 631-87 86 59.

• Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina

naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasanari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tf: 602-08 98 86

**Lan eskaintza**

• Langile baten bila gabiltza pertsona heldu baten zaintza eta etxeko lanak egiteko. Derrigorrezkoa da gidatzeko baimena eta paperak edukitzea. Tf: 656-73 55 19

**Etxe bila**

• Familia bat gara. Hiru gela dituen etxe baten bila gabiltza. Tf: 661-33 11 13

**Salgai**

• Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFS motorra. Abendura arte aseguru ordaindua du. 3.500 euro. Tf: 657-77 45 11

**Bestelakoak**

• Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tf: 623-17 95 37

• Garaje itxi bat erosi nahiko nuke kotxe bat sartzeko tokiarekin. Herri erdialdean edo goiko kalean. Tf: 666-18 41 69

**ITSASOA**

	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	06:51 eta 19:18	00:35 eta 13:02	☉
02	07:37 eta 20:08	01:19 eta 13:51	☉
03	08:29 eta 21:11	02:08 eta 14:48	☉
04	09:37 eta 22:32	03:07 eta 15:59	☉
05	11:00 eta 23:58	04:23 eta 17:20	☉
06	12:18 eta ____	05:45 eta 18:32	☉
07	01:03 eta 13:18	06:52 eta 19:26	☉
08	01:51 eta 14:03	07:42 eta 20:08	☉
09	02:29 eta 14:40	08:22 eta 20:44	☉
10	03:02 eta 15:14	08:58 eta 21:17	☉
11	03:33 eta 15:46	09:32 eta 21:49	☉
12	04:04 eta 16:18	10:05 eta 22:21	☉
13	04:35 eta 16:50	10:38 eta 22:54	☉
14	05:06 eta 17:24	11:13 eta 23:28	☉
15	05:40 eta 18:00	11:50 eta ____	☉
16	06:17 eta 18:41	00:05 eta 12:31	☉
17	06:59 eta 19:29	00:47 eta 13:18	☉
18	07:50 eta 20:28	01:35 eta 14:14	☉
19	08:55 eta 21:43	02:34 eta 15:22	☉
20	10:14 eta 23:08	03:46 eta 16:40	☉
21	11:36 eta ____	05:06 eta 17:56	☉
22	00:24 eta 12:47	06:20 eta 19:01	☉
23	01:25 eta 13:46	07:23 eta 19:56	☉
24	02:18 eta 14:38	08:17 eta 20:44	☉
25	03:04 eta 15:25	09:05 eta 21:29	☉
26	03:48 eta 16:09	09:50 eta 22:11	☉
27	04:29 eta 16:51	10:34 eta 22:52	☉
28	05:10 eta 17:33	11:16 eta 23:32	☉
29	05:50 eta 18:14	11:59 eta ____	☉
30	06:30 eta 18:56	00:12 eta 12:42	☉

**ZAINTZAKO BOTIKAK**

- AZAROA:
- 1ean, Gallo.
  - 2an eta 3an, Iturria.
  - 4an, Iriarte.
  - 5ean, Esparza.
  - 6an, Zulaika.
  - 7an, Larrañaga.
  - 8an, Iturria.
  - 9an eta 10ean, Etxeberria.
  - 11tik 15era, Lasa.
  - 16an eta 17an, Esparza.
  - 18an, Zulaika.
  - 19an, Larrañaga.
  - 20an, Lasa.
  - 21ean, Etxeberria.
  - 22an, Iriarte.
  - 23an eta 24an, Redondo.
  - 25ean, Larrañaga.
  - 26an eta 27an, Iriarte.
  - 28an, Lasa.
  - 29an, Gaminde.
  - 30ean, Zulaika.
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Esparza:** Santuiturri plaza, 5-6. 94350 47 83 Zarautz
- **Gallo:** Zigorria kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Gaminde:** Gipuzkoa Kalea, 68 943 12 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Iturria:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **Redondo:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz





# Orio

## Ikastaroak

- Urriaren 26an, larunbatarekin, *Heriotzak haurrengan duen eragina* ikastaroa kultur etxean, Mandala elkarteak antolatuta, Mar Cortina pedagogaren eskutik. 10:00-13:30 eta 16:00-19:30.

## Hitzorduk

- Azaroaren 4an, astelehenarekin, Miriam Mendoza ipuin kontalariaren saioa kultur etxeko areto nagusian, (3-6 urte arteko haurrentzat) 18:00etan.
- Azaroaren 10ean, igandearrekin, hazi-banaketa egingo du Herrio natur taldeak, 10:30ean hasita.
- Azaroaren 14an, ostegunarekin, Mintzalagun programaren ikasturte hasierako ekitaldia kultur etxeko areto nagusian, arratsaldeko 19:00etan.
- Azaroaren 19an, asteartearrekin, Ines Bengoa ipuin kontalariaren saioa kultur etxeko areto nagusian (5-8 urte arteko haurrentzat), arratsaldeko 18:00etan.

- Azaroaren 29an, ostiralarekin, erabilitako jostailuen bilketa, Herrio natur taldeak antolatuta. 16:00etan Zaragueta eskolan eta 16:30ean ikastolan.
- Asteazkenero, bingoa kultur etxean, 16:30ean hasita, azaroaren 20an izan ezik.

## Hitzaldiak

- Azaroaren 25ean, astelehenarekin, *Botere harremanak hezkuntzan*, hitzaldia Amelia Barquinen eskutik, Xaltxerak eta Zingira eskolak antolatuta. 17:30ean, Salatxo Aretoan.

## Musika

- Azaroaren 16an, larunbatarekin, Benito Lertxundiren kontzertua Karela kiroldegian, 22:00etan.
- Azaroaren 20an, asteazkenarekin, Musika Eskolaren kalejira, Santa Zezilia dela eta, arratsaldeko 17:30ean.

# Aia

## Jaiak

- Azaroaren 11n, astelehenarekin, San Martin jaiak ospatuko dira Urdaneta auzoan.
- Azaroaren 18an, astelehenarekin, San Roman jaiak ospatuko dira Altzola auzoan.
- Igandero, 18:30etik 21:30era erromeria Andatza auzoan.

## Erakusketak

- Urriaren 27ra arte zabaldik dago Aiako XIV. Argazki Lehiaketako irudiekin osatutako erakusketa, herriko Kultur Etxean. Ordutegia [aia.eus](http://aia.eus) atarian.

## Txapelketak

- Azaroaren 1etik 4ra, XXI. Kintopeko Idi Probak. Azaroaren 1ean, ostiralarekin, 18:00etan, Ainhoa Iketza eta Lopategi. Azaroaren 2an, larunbatarekin, 22:00etan, Telleria, Matxain eta Laski. Azaroaren 4an, astelehenarekin, 22:00etan, Izeta, Isidro Erretegia eta Benguria.

# BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

barne  
diseinua

etxea      sukaldea  
bainugela      ...  
leihoak      etxeko altzariak

eraberritzekotan?



## Bisita gaitzazu



Abendaño poligonoa, 2 · ZARAUTZ

☎ 943-13 50 16

[www.biyona.net](http://www.biyona.net)